

OINARRAK **KALEKO XXVI. MARGO LEHIAKETA**

- 1.** Nahi duen margolari orok parte har dezake, baldintza bakarra 18 urte baino gehiago izatea da. Parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.
- 2.** Lehiaketa 2019ko abuztuaren 4ean, igandea, izango da. Izen ematea lehiaketaren egun berean egingo da, Hondarribiko Molla Kalea 1ean.
- 3.** Zigilatzeke ordutegia hau izango da: goizeko 9:00etatik 11:00etara, Molla kalea 1ean. Neurri handiena 100 x 100 zm. izango da.
- 4.** Erabiliko diren teknikak: oleoa, akuarela, akrilikoa, librea edo mistoa izango dira. Partaide bakoitzak lan egiteko behar dituen tresnak eta materialak ekarri beharko ditu.
- 5.** Parte hartzaile bakoitzak Hondarribiko txokoren bat aukeratu beharko du. Argazki, lamina edo antzekoetan oinarrituta egiten diren lanak, lehiaketatik kanpo geratuko dira.
- 6.** Amaitutako lanak, sinatu gabe, Gipuzkoa plazan aurkeztuko dira, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. Ondoren, erakusketa toki berean kokatuko dira antolatzaileen irizpidearen arabera.
- 7.** Saritutako lanak Emeki Elkartearen eskuetan egongo dira.
- 8.** Epaimahaiaren erabakia ezbairik gabekoa izango da.
- 9.** Epaimahaiak horrela erabakiko balu, sariren bat eman gabe geldi liteke.
- 10.** Sariak Gipuzkoa plazan banatuko dira.
- 11.** Saririk gabeko lanak Gipuzkoa plazan, egun berean, gaueko 20:00ak arte jasoko dira. Une horretan jaso gabe geratzen diren lanekin Emeki Elkarteak erabakiko du zer egin.
- 12.** Lehiaketa honetan parte hartzen duten guztiek inplizituki oinarri hauek onartzen dituzte.
- 13.** Harremanetan jartzeko:

Emeki Elkartea > Molla,1 | 20280 - HONDARRIBIA
943 64 34 02
emekielkartea@hotmail.com

**SA
RIAK**

LEHENENGOA > 1.000 €

BIGARRENA > 700 €

HIRUGARRENA > 500 €

ACCESITA > Enmarkazio bat Atrezzo marko dendan (100 €) + oparia*